


VILLA DONOSTI
D MAILA

JUAN INFANTEA, 1
(lehen SATRUSTEGI HIRIBIDEA, 10)



Egile eta data ezezagunak
(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan)

Deskribapena

Txalet bakartua, erdisotoa, behe oina edo bastardea, bi goi oin eta kantoiko dorre bat dituena. Fatxada entokatuak, harlanduzko harriz egindako zokalo moduko basamentuarekin. Estilo menditarreko konposizioa duen eraikin honetan kantoiko dorrea eta, zura simulatuz, hormigoi moldekatuko teilatu hegala handiak nabarmentzen dira. Fatxada hoiiek ezaugarri eta baldintza ezberdinak dituzte. Satrustegi hiribidera eta Juan Infante kalera aurre egiten dutenen konposaketa orokorra (teilatu hegaletara eta kantoiko dorrera lotua) hiriko inguru horren hiritar irudi publikoaren parte dira. Bestetik, esparru pribatuetera aurre egiten duten fatxadak konbentzionalak dira, balio azpimarragarriak gabekoak.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Babesak, kantoiko dorrean eta Satrustegi hiribidera eta Juan Infante kalera aurre egiten duten fatxadetan soilik eragina du. Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baten konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: esparru pribatuetera aurre egiten duten fatxadak.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: teilatu hegala (Satrustegi hiribidera eta Juan Infante kalera aurre egiten duten zatian; kantoiko dorrearen lau fatxada edo alboetan).
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez.